

18



Ari - Gurutz

ATV

9481



4- 67358
F- 71284
AIV
29481

JAUNGOIKO-ZALE'REN IDAZTIAK—19

AÑI - GURUTZ

ITURONDO'TAR JON'AK ANTOLATU
DAUAN EDESKIA

OTSO ZARAREN ONUA

ARBURU'TAR TODOR'EK



JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN
ZORNOTZA-AMOREBIETA
1924

Nihil obstat .

Dr. Petrus de Menchaca

Imprimatur

Victoriæ 24 de Januarii 1921

Gubernator Eccs. (s. p.)

Dr. Josephi Leontius C. de Zurate

AÍRI—GURUTZ

GOSE ta abar eldu zan Guntz eiztaria, Silberberg bañeneko txabolara. Ez eban ez dirurik, ez eizarik. Atsotxo bat bizi zan txabolan, Epalen bere alabatxoakin.

Eiztariak oles - egin eban txabolako atetan:

—Ogi kuskur bat gosez dagon eiztariarentzat.

—Etxaukoat ba, mutil, neure alabatxoarena baño. Bera bañez, laster datořket lařatik, uga-zabaren ařtaldeaz.

Itz au esan ordukoxe, an zan neskatilea eř-bia bezin bizkor, gonak tařatadakaz, kuřtzuluko argia baño begi zoliagoak, buruko eřtzetik alde bietara bere ule kopeta mařdula jausten yakola.

—*Ama!* emen natoř, ots-egin eban atetan sař-eran.

Ogi kuskura ařtu ta eřdibitu eban, eta eřdiya eiztariyari eskiņi eutson iņotsola: Tira, eutsi, jan zuk be, onezkero gosetuko ziņan-da.



Ogi kuskura artu ta erdibitu eban,
eta erdiya eiztariari eskiñi eutson.....

— 5 —

Aldapa gora bide zidoŕa artu eban Guntzek.
Belaunak daŕ-daŕ, biyotza taupadaka eroyan.
*¡O Jaunoi, zerbait artuko ba'neu gauŕ, ogi
kuskur ori ordaintzeko!*

Izan be, aspaldiko zoririk onena izan eban.
Basauntz edeŕa lepo ganean ebala jatxi zan lasteŕ.
Ez eban astirik galdu. Urango egunean eskukada diruaz eldu zan txabol ondora, ta atso-txuari emon eutsozan esaten:

—Ara, ama, nik Epalen'i itzik egiteko kemenik ez daukat, baña..... ezin aztu naz.
Zeuk... semetzat edo... artu gura ba'ninduzu.

* * *

Opaŕi gorengo mañan egozan belauniko Guntz eta Epalen. Txaunburuak (1)—bien jayotza ikusi eban agure zaŕtxoa—Epalen'i eskutik oratu ta Guntz'i emon eutson zirautsola: «Emaste damotzugu ta ez mirabe, zeure aragia bezela maite egizu».

Zoruntsu bizi ziran. Guntze'k bere esku lanaz ta eizaz zuzentzen eban bere ama zaŕa ta

(1) Parrokoa.

emaste gastia, ta Kaunitz'eko txauburua janaritzeko aña. Txaunburu gixaxoa ba, guda gogoñak bere eleiztañen etxaldiak zuzitu zituaneetik, arenean bizi zan.

¡Jaungoiko erukioñak yabon bigaiz guda zenekenetik!

Baseñitañak, zer egin ez ekiela, batlak bestiarene atzetik iges egin eben.

Len beyak eta bioñak lañatzen ziran zelaietan, gudariak baño etziran ikusten. Al eben gustia arapau, ta sutzañ inguruan eriko bizi-gayak iruntziten zituen, bazteñ gustietan negaña ta izua eraiten ebela.

Guda onduan il zan Epale'ren ama zaña. Gun-tze'k gogo-yota, bere emasteari iñotson: *Guazen geu be emendik, gudarik izan ez dan to-kira.*

—Zeuk nai dozuna, erantzutson Epalen'ek.

Baña txaunburuak, buruari ezetz eraginda, iñotsen:

—Ni ez, ezin joan nindeke. Ementxe aurkitu bial nabe neure ardiak, bañiro artalderatzen diranean.

—Geu be ez guaz ba orduan, erantzun eben

senar-emasteak. Ezin geinke geure Aita bakarrik itxi.

* * *

Len estuegia ba-zan be, oin zabalegi etorki-yoen Kaunitze'ko Eleiza an batzen ziran iru laguntxoei: txauburua ta senar - emasteak. Jaunartzaldian senar - emasteak opa'ira eltzen ziran: zerutikako ogiaz gogoak sendotu, ta ba'iro jezarlekura jasten ziranean, txauburuak bere itzalditxoa negar sotiñez egin eroyoen.

Igande baten Guntz bakarrik eldu zan mezatara, ta berak bakarrik Yauna'rtu eban. Epalen oyan etzan. Ez zan jagiteko gai. Gexo zitelak eldu eutson. Urengo igandean ez zan iñor yaupa eldu. Txaunburuak, oi ebanez, yaupa egin eban, Eleiz mayak beste lagunik ez ebala. Ardao - uraz bere negar - malko samiñak iruntsi zituan esanaz: *Egin bedi, Jaunoi, zure naya.*

Yaupa egin ondoren, Oteun ontziya (kopoya) esku - ikaraz artu ta eleizatik at eruan eban Guntze'n txabolara. An etzan Epalen gurutza eskuetan ebala, iñi-bañez, deun irudi bizia, eriotzaren atzama'etan.



Gnntz'ek Silberbeg ganien basauntza ikusi eban.....

— 9 —

—Guntz emen egongo zalakoan nengoan.....

¿Nun da?

—Ara, Aita, Guntze'k Silberbeg ganian basauntza bere aumiaz ikusi ei eban atzo. Arixen esnia aitzeko gogoia etorri yatan, eta gaufer eguna zabaldu aurretik erasteko asmoaz juanda. Alantxe zan. An ebian Guntz bazauntzari erausika, aituko ba'leutsoan.

—Erdi, polit ori..... Tira, ez dautzut ezer egingo. Esne tantatxo bat Epalen il ez dakidan. Bai-dakizu zelan gelditzen nazan.....

Eta, begiak goruntz jasota, gogo indaraz inoan: *Jesus onoi, enaizu bakarrik itxi, bera bage! Ama, neure Ama Miren Anderea! Biok batera, Ogi Deuna artuta, ilgo bagina!*

* * *

Gora ta bera ezin batera begiratu. Basauntzari eltzen joyala, onek *tsats* egin eban; onak laprast - egin eutson, eta aitz baldari eutsola, txintxilik gelditu zan, goyan zerua ta beyan toferko ezpata zorotza ta bere txabolako leyoa zabalik ekusala.

—Jesus, entzun nozu; bera baño len zerura

nua, jeskeñik asko! Baña Ogi Deuna, biderako aingeru janariya ¿nok ekañiko daust?

Beyan Epalen'i Jauna emon ondoren, Oteun ontzia bañiro Eleizara eruateko txauburua urtetzera joyan. Txiliyo garatza egin eban Epalen'ek. Bere senaña leyotik agiri zan.


—*Ene, Jesus onoi! neu bage il biar da, ta... Zeu bage. Nik neure baitan zaukat, berak etzaukaz. Zuukio, Jesus onoi, neugana etoñi zarean lez.*

Txaunburua, jazoten zana ikusirik, aterantza asi zan atxintxika. Arapaladiatz Oteun ontziya idigi yakon. Oteunak iges egin eban: airez joyan Guntzegana:

—*Aintza Aita'ri, ta Semia'ri ta Goteuna'ri, diañ egin eban Epalen'ek.*

Lenengoan, txauburua bildurez ikara luñera begira gelditu zan, nun jausi ete zañ. Gero alatza (miraria) ekula, *Te Deum laudamus, Zeu Jaungoikuoï goستن زایتugu*, asi zan.

Zeu Jaunoi autoñtzen زایتugu, erantzun eban Epalen'ek, burua aurdikoan etzun eta azken luak añtzen ebala.



Txaunburua eldu zaneke, lurganien etzan
Guntz'en gorpua.....

An goi - goyan, Guntze'k, Oteuna aitzeko
aboa zabalduta, yafai eban:

*Zeu Aita betikoř oi, ludi osuak agurtzen
zaitu.*

* * *

Txaunburua eldu zaneko, lur ganien etzan
Guntze'n gorpuba, begiak zabal - zabal, azken
agura egin gura ba'leutson.

Seme bien gorpuak obi baten yortzi (1) zi-
tuan Aba zarak. Antxe ikusten da gaur be obi
ganian gomutakitzat ipiñi eban are-ari koskor-
ezko Gurutza, Tirol'eko baseñitarak *Wunder*
-Krenz, Alatz-Gurutza, deritxoena.

(1) Lurpetu.



Otso zararen onua

Elurte aundi luze bat egiñ zuen beiñ; artzayak, artaldeak artuta, yautsi ziren mendi goitik ibar zelayetarat eta eben etxoletako ganbelxtotan, al bezala bazkatuta, neke-neketan zauzkiten barenpetan, bakañik ateitzen zituztela edanazterat eta eguzki pixken bat artzerat.

Ardi ta bildotx gaxoak eta oriken artzayak lanak zituzten ziñez.

Baño zatoñkiena zen beltzena. Artaldeak bezalaxen otsotaldeak ere mendiak-bera, bulkaka bulkaka, elurtzak zekañzkien ibar barenetarat. Otsapil bat batez ere, otsoaita, otsoama ta otsakumeak osatzen zutena ibarño egitik beiti malkaño diko leizan kokatu zen...

Goseak ilak zeuden gaxoak; otsakumeak beintzat elkar yan nai zuten alarau ta mañumak... aitamari biotza erdibitzen zayen... oa i, zeñon amak, eta ekañak bere oritik ardiren bat... Bai bozik ateraldi bat egiñen niken, kufun ori; bañon ezagutuko niatek beila ta igesi

egiñen diton, artzanorak etoriko ditun artza-
yekin eta ilko gaizten...

Atzapañ zakañ altxa otso zakañ gero ta eñan
zion: «Begizan, ume otik bati yantzi zion bil-
dots-lañua ta bildots ibilkera ta yauziak eraku-
tsiko dizkionagu ta eguzkitarat ateitzean bildo-
tsak, bidaliko diñagu ta ekañiko ditiñ unat...
eta nik egiñen diñat gañerakoa.

Ta eñan bezala egiñ eta bildots gaxoak,
otsokume bildots lañuakin yauntziaren ondotik
yoan ziren otsaleiz alderat, eta otso zaren atza-
pañetan erori ziren eta otsapiña elurte gaitza
artan bazkatu zuten ederki.

Euskeldun ume, gazte ta Miren-alaba bika-
ñak, otso zakañaren onua, zer deritzaitzue? arpegi
alai alaidun mutiko ala nexka gaixto ura ez al
dire, bildots lañuakin yauntzita, datozkitzuen
otsakumeak? eta orobat gazte erugeak dirudi-
ten zuen adixkidetxo apaiñ eta itz leundun zen-
bait, zuek elizatik urundu, nola naiko antzoki
edo zinerat eramane, dirdaridun idaztitxoren bat
emon, yaunzki motz eta lepazpi nasai nabañme-
netarat eta dantzaki lotugetarat eta abañetarat

— 15 —


zalerazi nai zaituzten oriyek, otsokume utsak
ez, ardi larudun otsazarak ere ez al dire..?

* * *

Zorigaixto beltzez gure Euskeleri gaxo un-
tarat aspalditik datozkigu otsapil gaitsa eta
gero ta gosakil eta amoratuagoak... mendiak
bera baletoz eta elurtzaldietan gaitzerdi genu-
ke; baño egunoro ego ta ipar aldeko zelayak
gora gure mendi tuntuñetaraño eldu zaizkigu
laruki orokiñ ustalita... gu zoriondunak egite-
rat, datoz bai...

Ta euskeldunak lo zurunkan; edo amestan
yaki zatiak emanez aseta, eben lurretarat yoa-
nen direlakoan edo...









**1924'gaŕen urteko saritzat
8 lauerleko gitxienez ordaindu
dabenai, dubarik bialtzen yake
idazti au.**

Jaungoiko-Zale'n Artezkarija